

## ISTRIPUAK

**ASEGURUAREN HARTZAILEAK IGORRITAKO "VISA PLATINUM, VISA ORO/ORO DUAL/ORO PROFESIONAL/ORO ENPRESA, VISA CORPORATE, MC E-BUSINESS TXARTELEN TITULARRENTZAKO ISTRIPU-ASEGURUAREN BALDINTZEN LABURPENEA. LABURPEN HONEK INFORMAZIO-BALIOA DU; BERAZ, GATAZKA EDO AUZIRIK BALITZ, POLIZAREN TXARDINTZA OROKOR, PARTIKULAR ETA BEREZTETAN XEDATUTAKOAK BETEKO DA.**

- **ASEGURATZAILEA:** CAJA DE SEGUROS REUNIDOS CIA. DE SEGUROS Y REASEGUROS SA CASER.
- **HARTZAILEA:** KUTXABANK SA
- **POLITZA-ZK.:** 50114080
- **ERAGINETARAKO DATA ETA EPEMUGA:** 2023/12/31KO 00:00ETATIK 2024/12/31KO 24:00ETARA.

### • ASEGURUDUNAK:

Kontratuaren estaldurak aseguratutako pertsonen eskaintzen zaizkie adina edozein dela ere, indarrean dagoen lege-araudiak ezarritako mugak baino ez ditu.

### 1. ATALA: TXARTEL ASEGURATUAREKIN ORDAINDUTAKO BIDAIA BATEAN GERTATUTAKO ISTRIPUA.

Erreferentziako TXARTELEN TITULARRAK — betiere, pertsona fisikoak — eta, gehienez ere, txartel aseguratuen kontura bidaiatzen duten beste 9 pertsona joko dira asegurduntzat.

### 2. ATALA: ISTRIPUA, EGUNEKO HOGEITA LAU ORDUETAN.

Asegurduntzat joko dira txartel aseguratutako baten titular diren pertsona guztiak, baldin eta txartel hori gutxienez behin erabili bada ondandun higigarriak eta salgaiak erosteko ISTRIPUA gertatu aurreko hamabi hilabeteetan edo, beranduago gertatu bada, POLIZA indarrean dagoenetik. Atal honetan, ez dira sartzen enpresa-txartelak.

### • KONTRATUTAKO ESTALDURAK ETA ASEGURATUTAKO KAPITALAK:

#### 1. ATALA: Txartel aseguratuekin ordaindutako bidaiak batean gertatutako istripua.

ATALA	ESTALDURA	ASEGURATUTAKO ZENBATEKOA
1	HERIOTZA, TXARTEL ASEGURATUAREKIN ORDAINDUTAKO BIDAIA BATEAN GERTATUTAKO ISTRIPU BATEAN ONDORIOZ.	1.000.000,00 €
	EZINTASUN IRAUNKORRA, TXARTEL ASEGURATUAREKIN ORDAINDUTAKO BIDAIA BATEAN GERTATUTAKO ISTRIPU BATEAN ONDORIOZ.	1.000.000,00 €
	BAHIKETA-GASTUAK, TXARTEL ASEGURATUAREKIN ORDAINDUTAKO BIDAIA BATEAN.	6.000,00 €
	EGONALDIAREN ESTALDURA BARNE	
	ALOKAIRUKO TURISMO-AUTOMOBILA	zenbatekoaren % 50 aseguratua.

ASEGURATZAILEAK deskribatutako kalte-ordainen ordainketa bermatzen du txartel aseguratuekin munduko edozein lekutan ordaindutako GARRAIBIDE PUBLIKO batean gertatutako ISTRIPUen ondorioz ASEGURUDUNEK izan ditzaketen kalte fisikoengatik eta aseguratuta eongo da, betiere bidaiaren iraupena 30 egunetik gorakoa ez bada. Estaldura hau kasu hauetan aplikatuko da:

1. Aseguratutako pertsona txartel aseguratuekin ordaindutako garraio bide publiko bateko (taxia, auto gidariduna, autokarra, autobusa, tren, metroa, itsasontzia edo hegazkina) bidaiaria denean.
  2. Aseguratutako pertsona garraio bide publiko batera igotzen denean edo handik jaisten denean, bidaiak-txartela txartel aseguratuekin ordaindu baldin bada.
  3. Aseguratutako pertsona aireportuko terminal batean, itsas portu batean, tren- edo autobus-geltoki batean, eta abar, dagoenean garraio bide publiko batera igotzeko asmoz bidaiak-txartela txartel aseguratuekin ordaindu ondoren; barnean sartzen dira, halaber, leku horietarainoko edo leku horietatik beste nonbaiterainoko garraio publiko bidaiak, baita txartelarekin ordaindu ez badira ere.
  4. Aseguratutako pertsona iterea- eta itzulera-puntura iristeko beharrezko diren garraio bide publiko osagarrietako bidaiaria denean.
  5. Aseguratutako pertsona alokairuko automobil bategi gidari edo bidaiari denean, alokairuaren zenbatekoa txartel aseguratuekin ordaindu baldin bada (muga: aseguratutako kapitalaren % 50).
- 14 urteketik beherako umeen kasuan, estaldura gehienez 6.000 eurokoa izango da hiletan gastuetarako mugaturik.
- Partzialki ordaindutako bidaien kasuan, aseguratutako kapitalaren proportzioa, erositako bidaiaren balioaren eta txartelarekin ordaindutako portzentajearen kalkulatu da.

#### 1. HERIOTZA:

ASEGURUDUNA ISTRIPU baten ondorioz hiltzen bada, Baldintza Partikularretan estaldura honetarako ASEGURATUTAKO ZENBATEKOAren pareko kalte-ordainen ordainketa bermatzen du ASEGURATZAILEAK, betiere bidaiak-txartela TXARTEL ASEGURATU batekin ordaindu baldin bada.

#### 2. EZINTASUN IRAUNKORRA:

ISTRIPU batek eragindako lesioen ondorioz ASEGURUDUN batek EZINTASUN IRAUNKOR ERABATEKOA pairatzen bada, estaldura honetarako ASEGURATUTAKO ZENBATEKOAren pareko kalte-ordainen ordainketa bermatzen du ASEGURATZAILEAK, betiere bidaiak-txartela TXARTEL ASEGURATU batekin ordaindu baldin bada.

ISTRIPU batek eragindako lesioen ondorioz ASEGURUDUN batek EZINTASUN IRAUNKOR PARTZIALA pairatzen bada, galera anatomikoari dagokion portzentajea aplikatu ondorengo zenbatekoaren pareko kalte-ordainen ordainketa bermatzen du ASEGURATZAILEAK, betiere bidaiak-txartela TXARTEL ASEGURATU batekin ordaindu baldin bada.

	Eskuina / Ezkerra
Erabateko paralisia	% 100
Erotasun sendaezina	% 100
Erabateko itsutasuna	% 100
Hauen erabateko galera edo erabilezintasuna:	
- Bi besoak, eskuak, hankak edo oinak; beso bat eta hanka bat edo oin bat; edo hanka bat eta oin bat; edo esku bat eta oin bat	% 100
- Beso edo esku	% 60 / % 50
- Erpura	% 20 / % 15
- Hatz erakuslea	% 16 / % 13
- Eskuko hatzetako bat	% 8 / % 7
- Sorbaldaren mugimendua	% 25 / % 20
- Ukondoaren mugimendua	% 20 / % 15
- Eskumuturraren mugimendua	% 20 / % 15
- Hanka, belauetik gora	% 50
- Hanka, belauaren parean edo belauetik behera	% 40
- Oineko hatz lodia	% 10
- Oineko beste hatzetako bat	% 5
- Aldakaren edo belauaren mugimendua	% 20
- Orkatilaren mugimendua	% 20
- Artikulazio subastragalinoaren mugimendua	% 10
- Bizkarrezur zerbikalaren, dorsalarren edo lumbarraren mugimendua,	
zeinu neurologikoak dituztenak edo ez dituztenak	% 33
- Begia, edo ikusmen binokularren erdia gutxienez	% 30
- Baldin eta beste begiaren ikusmena galduta bazeogen istripuaren aurretik	% 50

Gutxienez bost zentimetroko hanka-laburtzea	% 5
Hankaren edo oinaren haustura orbaingabea	% 25
Errotularen haustura orbaingabea	% 20
Beheko masailazurraren erabateko ablazioa edo galera	% 25
Erabateko gorrieria bi belarrietan	% 40
Erabateko gorrieria belarri batean	% 10
Baldin eta beste belarriaren gorrieria erabatekoa bazen istripuaren aurretik	% 20

**3. BAHIKETA-GASTUAK:** Garraio bidea bahitzen badute, Aseguratzaileak 6.000,00 €-ko kalte-ordaina ordainduko du gehienez ere, betiere bidaiak-txartela txartel aseguratutako baten bidez erosi baldin bada.

**4. EGONALDIA:** Bidaiak bateko egonaldian pertsona aseguratua edozein garraio bide publikotan doanean gerta daitezkeen istripuak estaltzen ditu aseguruak, betiere bidaiaren zenbatekoa txartelarekin ordaindu baldin bada. Bidaiak bakoitzaren gehienezko iraupena: 30 egun

**5. ALOKAIRUKO AUTOMOBILAK:** Espresuki adierazten da aseguru hau beste kasu hau ere estaltzeko zabalzen dela: txartelaren titularrak eta, gehienez ere, beste 9 pertsonak (txartel aseguratuen kontura bidaiatzen dutenak txartelaren titularrak aseguratutako zenbateko barekin) alokairuko automobil batean gidari edo bidaiari gisa joanez izandako istripuak, betiere alokairuaren zenbatekoa txartel aseguratutako batekin ordaindu baldin bada.

Edonola ere, estaldura honetarako, aseguratutako 5 pertsona izango dira GEHIENEZ —txartel aseguratuen titularrak barne— ISTRIPU bakar batean.

Halaber, estaldura honetarako KAPITALA ASEGURATUTAKO ZENBATEKOAren % 50 izango da.

#### 2. ATALA: Istripua, eguneko hogeita lau orduetan.

ATALA	ESTALDURA	ASEGURATUTAKO ZENBATEKOA
2	ISTRIPU BATEAN ONDORIOZKO HERIOTZAK ERAGINDAKO EROSKETEN ZORRAK, EGUNEKO HOGEITA LAU ORDUETAN.	ISTRIPUA gertatu aurreko hamabi hilabeteetan banku-laburpenetan kargatutako erosketen ondoriozko zorrak (gehienez ere 15.000,00 € ezbehar bakoitzeko). Ez da kontuan hartzen kutxazainetan ateratako eskudirua.
	ISTRIPU BATEAN ONDORIOZKO EZINTASUN IRAUNKORRAK ERAGINDAKO EROSKETEN ZORRAK, EGUNEKO HOGEITA LAU ORDUETAN.	ISTRIPUA gertatu aurreko hamabi hilabeteetan banku-laburpenetan kargatutako erosketen ondoriozko zorrak (gehienez ere 15.000,00 € istripu bakoitzeko). (EZINTASUN IRAUNKOR PARTZIALA, BAREMOAREN ARABERA) Ez da kontuan hartzen kutxazainetan ateratako eskudirua.
	ISTRIPU BATEAN ONDORIOZKO HERIOTZAK ERAGINDAKO SALDO-KITAPENA, EGUNEKO HOGEITA LAU ORDUETAN	TXARTEL ASEGURATUarekin erositako ondasun higigarrien eta salgaien ondoriozko saldo kobratugabea (gehienez ere 6.000,00 € istripu bakoitzeko).

ASEGURATZAILEAK bitartean eta jardueraren profesionalen gertatutako ISTRIPUen ondoriozko kalte fisikoak bermatzen dizkie ASEGURADUNEI.

#### • SARTZEN EZ DIRENAK (1. eta 2. ATALAK):

Ez dira sartzen Baldintza Orokorretan hala jasotakoak. Oro har, eta izaera mugatzailek izan gabe, Aseguratzaileak ez ditu bermatuko istripu, gaixotasun edo lesio hauek, ezta haien ondorioak ere: a) Poliza indarrean sartu aurretik gertatutakoak, nahiz eta hura indarrean dagoenean agertu, ezta istripua gertatu eta 365 egunera agertzen direnak ere; b) Une bakoitzean indarrean den legediaren arabera Aseguruen Kontentsazio Partzuergoak estaltzen dituzten gertaera edo fenomenoen ondoriozko kalteak.

Halaber, ez dira sartzen hauen ondorio diren ezbeharrik: a) Asegurudunak edo Polizaren Onuradunek nahita eragindakoak. Onuradun bat baino gehiago baldin badago, parte hartu ez dutenek aseguratutako kapital osoarekiko eskubidea izaten jarraituko dute. b) Zuhurtziagabekeria ausartegia, zabalerkia larria eta/edo Asegurudunak apustuetan, desafioetan, dueluetan, liskarretan edo delituetan parte hartzea, salbu eta AURRETIAZKO artikularen Istripu Definitzioa atalaren d) letran azaldutakoak. c) Edozein kirolaren jardun profesionala. Bai eta beste kirol hauen jardun amateurrak ere: itsas ertzetik edo kostaldetik 3 km-rra baina gehiagora egindako ur-kirolak; 20 m-tik gorako sakonera-urpekariak; aire-jarduerak eta paraxutismoa; automobilismoa, motoziklismoa, abiadura-lehiaketak; eskalada, goi-mendiko alpinismoa eta espeleologia; ekizazioa eta poloa; boxeo, borroka eta arte martzialak; patinajea eta izotz-hockeya, eta eskia; Espainiatik kanpo ehiza larria; zezen suharren zezenketa eta entzierroa; eta aipatutako arriskuen antzekoak eragin ditzaketen beste edozein kirol edo jardura. d) Ibilgailu motordunak gidatzea, Asegurudunak ez bada horretarako behar den baimen administratiboa. e) Elikagaiak edo botikak eragindako intoxikazioak. f) Aseguratutako istripu batek eragin ez dituen ebakuntza kirurgikoen edo tratamendu medikoen ondoriozko lesioak. g) Erreakzio edo erradiazio nuklearrak eta poluzio erradioaktiboa, salbu eta aseguratutako istripu baten ondorioz Asegurudunari aplikatutako tratamenduen ondorioak. h) Pertsonak mendian, itsasoan, oihanean edo basamortuan erreskatatzeko lanak. Aseguratutako istripu batek eragin ez dituen intsolazioak, izotzak eta klimaren eraginaren beste ondorio batzuk. i) Aseguruduna mozkorra egonda (hau da, istripua gertatu denean haren alkoholemia-maila indarrean den legediak ezarritako baino handiagoa denean) edo droga toxiko edo estupefazianteen eraginpean egonda gertatutako istripuak. j) GIB birusak (giza immunoexkasiaren birusa) eragindako zuzeneko eta zeharkako ondorioak. k) Polizak estalitako istripu baten fisikoak, lesioek ez badira azaldu, ezta egiaztatuta ere, istripua gertatu eta 365 egunean epearen barruan. l) Hauen ondorioz gerta daitezkeen lesioak: gaixotasun bat, gaitz zerebrobaskularrak, epilepsia, erotasuna, sinkpoea. m) Infartua, salbu eta lan-agintaritzaren eskudunak lan-istripuztat jotzen bada. Miokardioko infartu baten ondorioz kalte-ordaina jaso ahal izateko, infartuak izan behar du heriotzaren edo ezintasunaren kausa bakar eta berehalakoa. n) Miopia degeneratiboa. o) Istripu baten ondorioak larriagotzen badira lehendik zegoen gaixotasun edo egoera morboso baina istripuarekin zerikusirik ez duen batengatik, Aseguratzaileak ondorio hauei bakarrik erantzun die: gaixotasun edo egoera morboso haren eraginik gabe istripuak izango lituzkeen ondorioei. Ezin bada zehaztu zer mailatara eragina izan duen lehendik zeuden lesio edo egoera patologikoek istripuaren ondorioetan, istripuak haien % 50 eragin duela ulertuko da. p) Lehendik zegoen ezintasun baten ondorioz gertatutako istripuak.

Ez dira ezin kasutan aseguratuko —nahiz eta aseguratuta dagoen istripu baten ondorio izan— edozein motatako herniak, edozein etiologiatako lumbalgia, zerbiakgia eta dorsalgia, barizeak, aneurismak; istripu zerebrobaskularrak, salbu eta polizak estalitako istripu baten ondorio zuzena baldin badira, eta diagnostikoak egiteko ohiko balibideen bidez kausa objektiborik bilatu ezin zaien algia guztiak.

Horietaz gainera, POLIZAK ez ditu beste hauek estaltzen: 1. Gerrekien, gerra zibilekin, iraultzeekin eta bahiketekin loturiko gertakariak. 2. Suizidioa edo suizidatzeko ahalegina. 3. POLIZAREN onuradunek nahita eragindako edo probokatuak ISTRIPU hilgarriak. Onuradun bat baino gehiago baldin badago, onuradun errudunaren parte-hartzea bakarrik baliogabetuko da. Edonola ere, onuradun errugabe(ar)(e) dagokien zatia ez zaie besteie erantsiko. 4. Legalki publikotzat jotzen ez diren garraio bideetan gertatutako ISTRIPUAK. 5. Diru-ateratzeak. 6. Zerbitzu publikorako ez diren jabetza partikularreko aireontzien erabilera, bai eta fumatzeak, suteei aurre egiteko edo salbamendu-zerbitzuetarako erabiltzen diren helikopteroen eta hegazkinen erabilera ere. 7. Matxinada, herri-liskarra, terrorismoa eta sabotajea, salbu eta OHIZ KANPOKO ARRISKUAK atalean Espainiar gertatutako eta Aseguruen Kontentsazio Partzuergoak estalitako ohiz kanpo gertaerarako ezarritakoak.

## ISTRIPUAK

ASEGURUAREN HARTZAILEAK IGORRITAKO "VISA PLATINUM, VISA ORO/ORO DUAL/ORO PROFESIONALA/ORO ENPRESA, VISA CORPORATE, MC E-BUSINESS TXARTELEN TITULARRENTZAKO ISTRIPU-ASEGURUAREN BALDINTZEN LABURPENA. LABURPEN HONEK INFORMAZIO-BALIOA DU; BERAZ, GATAZKA EDO AUZIRIK BALITZ, POLIZAREN BALDINTZA OKOROK, PARTIKULAR ETA BEREZTETAN XEDATUTAKOAK BETEKO DA

### EZBEHARRAK JAKINARAZTEA

Poliza honen bidez estaldura gai den edozein gertaera gertatuz gero, Aseguratuak, aseguru honen bermeak izateko, ezbeharrak jakinarazi beharko du, hura gertatu eta hurrengo 7 egunen barruan, honela:

CASER: Posta elektronikoa: [prestaciones-sg@caser.es](mailto:prestaciones-sg@caser.es)  
Telefonoa: **91.590.96.27**

Estaldurei buruzko kontsultak: [ayudamediacion@caser.es](mailto:ayudamediacion@caser.es) (poliza honen estaldurekin zerikusia duten kontsultei baino ez zaie erantzungo).

#### **Kalte-ordaina jasotzeko, informazio edo/eta dokumentazio hau bidali beharko da:**

- Heriotzaren kasuan
- . Heriotza-ziurtagiria
- . Hildakoaren eta onuradunen NANaren fotokopia konpultsatua.
- . Onuradunen izaera eta nortasuna egiaztatzeko agiriak (familia-liburua, etab.).
- . Azken borondateen Egintzen Erregistroak emandako ziurtagiria eta azken testamentuaren kopia.
- . Istripua egiaztatzeko dokumentazioa (atestatuak, eginbide judizialak).

- Erabateko baliaezintasunaren kasuan
- . Gizarte Segurantzaren baliaezintasun-ebazpena
- . Lesioaren kausa, hasiera, izaera eta ondorioa adierazten duten mediku-ziurtagiriak, izandako ondorioak adierazita.
- . Istripua egiaztatzeko dokumentazioa (atestatuak, eginbide judizialak, laneko istripuaren parteak).
- . Aseguratuaren NANaren fotokopia konpultsatua.

Bai eta, bi kasuetan, Aseguratuak zentzuz eskatzen duen dokumentazioa ere

**ASEGURUAREN ERAKUNDE HARTZAILEAK JAULKITAKO TXARTELEZ EGINDAKO  
EROSKETAK BABESTEKO ASEGURUAREN 96.238.792 POLIZAREN BALDINTZEN LABURPENA**

**ASEGURATZAILEA:** Caja de Seguros Reunidos, Cía. de Seguros y Reaseguros SA – CASER – (IFKA: A-28013050)- Avda. de Burgos, 109 – 28050-MADRID  
**HARTZAILEA:** KUTXABANK SA, ON DIEGO LOPEZ HAROKO KALE NAGUSIA, 30 – 48009-BILBO (BIZKAIA) IFKA: A95653077

**ASEGURUDUNAK.-** Polizaren erakunde hartzaileak jaulkitako txartel hauen titular fisikoak: Visa Platinum, Visa Oro, Visa Oro Dual, Visa Oro Profesionala, Visa Corporate, Visa Oro Especial eta Mastercard E-Busines.

**ESTALITAKO ARRISKUAK.-**

Lapurreta, espoliazioa eta erosketen istripuzko kaltea

**ASEGURATUTAKO KAPITALAK.-**

- Erosketen lapurreta eta espoliazioa: 500 € ezbehar bakoitzeko, 500 € txartel/aseguru-urte bakoitzeko.
- Erosketen istripuzko kaltea: 500 € ezbehar bakoitzeko, 500 € txartel/aseguru-urte bakoitzeko.

**ESTALDURA-ALDIA**

POLIZAREN eraginetarako dataren eta epemugaren arteko denbora, Baldintza Partikularretan jasotzen den bezala, edo, bestela, eraginetarako dataren eta kontratuaren suntsiarazpenaren edo azkentzearen dataren artekoa, baldin eta lehenagoakoak badira, betiere Hartzaileak eskatutako prima ordaindua duela eta Asegurudunak txartela aktibatua duela.

**ASEGURUAREN IRAUPENA**

Aseguru honek urtebeteko iraupena izango du, eta, aseguruaren Hartzaileak hala erabakitzen badu, urtez urte luzatu ahal izango da.

**ESTALDURA EZEREZTEA**

Estaladura kasu hauean amaituko da:

- Asegurudunaren txartela berritzen ez bada edo deuseztatzen bada.

- Poliza hau berritzen ez bada edo ezerezten bada.

**KUTXABANK SAK beretzat gordetzen du aseguru-poliza hau urtez urte ez berritzeko eskumena.**

**ESTALITAKO ARRISKUAK**

**EROSKETEN BABESA**

EROSKETEN LAPURRETA ETA ESPOLIAZIOA: Baldintza Partikularretan estaldura honetarako ASEGURATUTAKO ZENBATEKOAREN ordainketa bermatzen da TXARTEL ASEGURATUA erabiliz erositako gauzen legez kontrako jabetza, lapurreta edo espoliazio kasuan, baldin eta aipatutako ordainbide hori erabiliz gehienez 90 egun igaro badira erosketak egin denetik. Erosketaren gutxieneko zenbatekoa: 50 euro. Kopuru horren azpitik ez dago kalte-ordainik. Hala ere, lapurtutakoaren zenbatekoa 50 eurotik gorakoa bada, kalte-ordaina kenkaririk gabe emango da.

**EROSKETEN ISTRIPUZKO KALTEA.**

Baldintza Partikularretan estaldura honetarako ASEGURATUTAKO ZENBATEKOAREN ordainketa bermatzen da TXARTEL ASEGURATUA erabiliz erositako gauzen istripuzko kaltearen kasuan, baldin eta aipatutako ordainbide hori erabiliz gehienez 90 egun igaro badira erosketak egin denetik. Erosketaren gutxieneko zenbatekoa: 50 euro. Kopuru horren azpitik ez dago kalte-ordainik. Hala ere, lapurtutakoaren zenbatekoa 50 eurotik gorakoa bada, kalte-ordaina kenkaririk gabe emango da.

**ESTALDURATIK KANPO DAUDENAK:**

**POLIZAREN Baldintza Orokorrren 3. Artikuluan ageri diren Estaldurarik gabeko Arriskuez gainera, POLIZA honek ez ditu hauek estaltzen:**

- Erosketak egiteko edo zerbitzuak alokatzeko TXARTEL bat erabiltzearen ondoriozko kalteak eta/edo galerak, baldin eta erosketak edo zerbitzu-aloakatzeko horiek eskuratutako erabilitako TXARTELA deuseztatutako edo errebokatutako bazituen TXARTELA jaulki duen Banketxeak.
- ASEGURUDUNAK, bere borondatez, ezkutuko zenbaki pertsonala edo PINa jakinarazi izanaren edo TXARTEL ASEGURATUAN edo beste edozein agiritan apuntatu izanaren ondorioz gertatzen diren kalteak eta/edo galerak.
- Jaulkitako zordunketa- edo kreditu-TXARTELA erabiltzearen ondoriozko galera, hura jaulki duen Banketxeari eskatu gabe erabili bada. Estalduratik kanpo gelditze hori ez da aplikatuko TXARTEL ASEGURATUAK berritzen edo berrematen direnean.
- Kreditu- edo zordunketa-TXARTELA jaulki duen Banketxeak edozein enplegatuk, bakarrik zein beste pertsona batzuekin ados jarrita, egindako iruzurrezko, desoneskeriazko edo delituzko egintza baten ondoriozko galerak eta kalteak.
- Asegurudunak edo haren senide batek (ezkontidea, izatezko bikotekidea, ondorengoak edo aurrekoak) doloz edo intentzio-egintzaz eragindako kalteak.
- Behin betiko galtzeak, aldi baterako galtzeak eta ebasketak.
- Urratuak, kalte estetikoak, karrakatzeko-markak, gainazal-altxatzeak, gainazal-narriadurak.
- Higadura edo narriadura geldia kausa hauek baten ondorioz gertatzen denean: ohiko erabilera edo funtzionamendua, erosioa, korrosioa, herdoiltzea, sitsak, intsektuak, hezetasuna, hotza zein beroa edo pixkanakako narriadura eragiten duen beste edozein kausa.
- Ekoizleak edo banatzaileak aseguratuta dagoen ondasunerako aholkatutako erabilera-jarraibideak ez betetzeak eragindako kalteak.
- Garbitze-, tindatze-, konpontze- edo zaharberritze-prozesu batek eragindako kalteak.
- Saltzaileak, haren mendekoeak edo berariaz kontratatutako hirugarren batek aseguratutako ondasunak garraiatzean, lekuz aldatzean edo mugitzean gertatutako lapurreta, espoliazio edo kalteak.
- POLIZA indarrean dagoen bitartean gertatutako estaldurarik gabeko edozein galera edo kalte, edo poliza indarrean jarri aurretik gertatutako edozein.

- Denboraren eragin hutsez gertatutako kalteak, bai eta naturaren fenomeno hauek eragindakoak ere: lurrikarak eta itsasikarak, sumendi-erupzioak, ekaitz zikloniko atipikoak eta gorputz sideralak eta aerolitoak erortzea.
- Terrorismo, errebolta, albaramendu, matxinada eta herri-liskararen ondorioz bortxaz gertatutako kalteak.
- Indar Armaturen eta Segurtasun Kidegoen ekintzek edo jarduerak bakealdian eragindako kalteak.
- Aseguratutako gauzaren berezko akats batek eragindako kalteak.
- Gatazka armaturen eraginez gertatutako kalteak, aldez aurretik gerra-deklarazio ofizialik izan ez bada ere.
- Taiminagatik eta larritasunagatik Estatuko Gobernuak "hondamendi edo zorigaitz nazional" izendatzen dituen kalteak.
- Energia nuklearretik eratorritakoak.
- Erosketen Babesari dagokionez (Lapurreta, Espoliazioa eta Erosketen istripuzko kaltea), TXARTEL ASEGURATUAREKIN erositako gauzetan espoliazioaren ondorioz gertatutako galerak edo kalteak, aipatutako ondasunak aparkatutako ibilgailuen barnean daudenean. Hala eta guztiz ere, berariaz adierazten da bermatuta daudela TXARTEL ASEGURATUAREKIN erositako gauza guztiei eragindako kalte edo galerak baldin eta ibilgailuaren barnealdean egindako lapurretaren ondorioz bada, hau da, baldin eta ibilgailuan bortxatze-zeinuak ageri badira, hala nola leihatila eta/edo ate hautsiak, edo sarraila behartuak; edo ibilgailua lapurtzen edo osten denean.

**EZBEHARRAK JAKINARAZTEA**

Poliza honen estaldura izan lezakeen edozein gertaera jazotzen denean, Asegurudunak gertaeraren hurrengo 7 egunen barnean jakinarazi behar du, modu honetan:

CASER: Avda. de Burgos, 109 – 28050 Madrid Posta elektronikoa: [prestaciones-sq@caser.es](mailto:prestaciones-sq@caser.es), Telefonoa: **91.590.96.84**

Kalte-ordaina jasotzeko, informazio eta/edo dokumentazio hau bidali behar da:

- Poliza-zenbakia
- Kalteak noiz gertatu diren
- Kalteen gorabeherak eta kausa
- Salaketaren kopia.
- Gauza aseguratuen erosketaren ordainagiria (data eta prezioa dituela), saltegiak emanda.
- Gauza aseguratua txartel aseguratuekin ordaindu izanaren egiaztageria. Aseguratzailerak beretzat gordetzen du peritu bat izendatzeko eskubidea, erreklamazioaren gorabeherak edo zenbatekoa edo kalteen zenbateko zenbatetsia ebalua dezan.

**GARRANTZITSUA:** mesedez, gorde ziurtagiri hau leku seguruan.

Erreklamazio kasuan, dokumentu hau izango duzu gidari.

\* Bermeen laborpen hau informazio hutserako da, eta ez ditu ordezkatzen polizaren baldintza orokorrak, desadostasunik izanez gero nagusituko direnak.

\* Poliza kolektiboa asegurudunaren eskura dago, Aseguru-hartzailearen eta CASER, S.A. konpainiaren helbideetan.

AGIRI HAU KUTXABANKEK ASEGURUDUNEN ESKU JARRI BEHAR DU, ETA KUTXABANKEK ASEGURU-HARTZAILE GISA ETA CASERREK 96.238.792 POLIZARI APLIKATU BEHARREKO ASEGURATZAILE GISA SINATUTAKO KONTRATU-BALDINTZEN LABURPEN BAT DA. INTERPRETAZIOAN ZALANTZARIK IZANEZ GERO, BETE EGINGO DA KUTXABANKEN HELBIDEAN ASEGURUDUNEN ESKURA DAUDEN AIPATUTAKO KONTRATU-BALDINTZETAN XEDATUTAKOAK. ASEGURATUTAKO PRESTAZIOAK INDARREAN EGONGO DIRA 96.238.792 ZENBAKIDUN POLIZA INDARREAN DAGOEN BITARTEAN, BALDIN ETA ALDATZEN EZ BADA, ETA POLIZA IRAUNGITZEN DEN UNEAN BALIOGABETUKO DA.

## BIDAIA-ASISTENTZIA

**ASEGURUAREN HARTZAILEAK JAULKITAKO "VISA PLATINUM, VISA ORO/ORO DUAL/ORO PROFESIONAL/ORO ENPRESA, VISA CORPORATE, MC E-BUSINESS, VISA DUAL, VISA DUAL KORNER/ K26/ K26+/ 100%/R.SOCIEDAD/PROFESIONAL/ENPRESA, VISA CLASSIC/CLASSIC ENPRESA/NAKAR/PARTAIDE, MC AZUL, VISA EXTRA, TITANIO eta MC VIT" KREDITU-TXARTELEN TITULARRENTZAKO LAGUNTZA-ASEGURUAREN BALDINTZEN LABURPENA. LABURPEN HONEK INFORMAZIO-BALIOA DU; BERAZ, GATAZKA EDO AUZIRIK BALITZ, POLIZAREN BALDINTZA OROKOR, PARTIKULAR ETA BEREZETAN XEDATUTAKOA BETEKO DA.**

**ASEGURU HONEN BERMEEN BEREZKO ZERBITZUEN PRESTAZIOA IZATEKO, EZINBESTEKO DA ASEGURUDUNA, GERTAERA JAZOTZEN DEN UNETIK AURRERA, TELEFONO HONETARA DEITzea ESKU-HARTZEA ESKATZEKO (HARTZAILEAK ORDAINTZEKO DEIA ERABIL DATTEKE. ETENGABEKO ZERBITZUA 24 ORDUTAN)**

**91 594 96 74 (+34 Beste herrialde batetik)**

Aipatutako bermeen laguntza eskatzeko telefono bidezko komunikazioetan, hau adierazi behar da: asegurdunaren izena, txartelaren zenbakia, non dagoen, telefono-zenbakia eta zer laguntza-mota behar duen.

### • AURRETIAZKO XEDAPENAK:

**ASEGURATZAILEA:** CAJA DE SEGUROS REUNIDOS CIA. DE SEGUROS Y REASEGUROS, S.A. CASER. Berak hartzen du bere gain kontratu honen xede diren arriskuen estaldura, eta prestazioak bermatzen ditu; eta CASAVIK ematen ditu kontratuan bermatutako zerbitzuak.

**HARTZAILEA:** KUTXABANK, S.A.

**POLIZA-ZK.:** 50114080

**ERAGINETARAKO DATA ETA EPEMUGA:** 2023/12/31KO 00:00ETATIK 2024/12/31KO 24:00ETARA.

**ASEGURUDUNAK:** Garraioibide publiko batean bidaiatzen duten pertsonak, baldin eta garraioa TXARTEL ASEGURATU baten bidez ordaindu bada eta pertsona horiek aseguruaren hartzaileak jaulkitako txartelaren titularrak badira –pertsona fisikoak, nolabai ere–, eta beste 9 pertsona, gehienez ere, baldin eta aseguruaren duen txartelaren kargu bidaiatzen badute.

**ASEGURUAREN EREMUA:** Poliza honetan deskribatutako bermeek Espainian, Europan edo mundu osoan jazotako gertaerarako balio dute.

**BALIZKOTASUNA:** Estalita bermeen onurak izateko, Asegurdunak bere ohiko bizilekutik kanpo bidaiagatik edo joan-etorriagatik daraman denborak ez du izan behar 30 egun baino luzeagoa.

### ESTALITAKO BERMEAK:

CASERen eta CASAVIREn artean kontratatutako baldintzen arabera, ASEGURUDUNAK atalean deskribatutako pertsonen prestazio hauetarako eskubidea izango dute:

. Laguntza medikoa eta osasun-laguntza. Konpainiak bere kargu hartuko ditu gaixotutako edo zauritutako Asegurdunaren artatzeko behar diren osasun-profesionalen eta osasun-establimenduen esku-hartzean dagozkion gastuak, 6.000 euroaraino Europan (Espainia salbu) eta 9.000 euroaraino munduko gainerakoan. Odontologia-gastuak, edozein motatakoak direla ere, 100 eurora mugatuta daude (edo haren balioakidera tokiko monetan).

. Zaurituen edo gaixoen aberrirratzea edo osasun-garraioa. Asegurdunaren istripuaren edo geroa sortutako gaixotasunaren kasuan, Konpainiak bere kargu hartuko ditu Asegurduna gertuen dagoen klinikaraino edo agindutako ospitaleraino edo bere ohiko bizilekuraino ambulanziaz eramatearen gastuak.

. Gaixondoa hotelean. Gaixotutako edo zauritutako Asegurduna ezin bada etxera itzuli medikuak hala aginduta, Konpainiak bere gain hartuko ditu hoteleko egonaldia luzatzeak dakartzan gastuak, gehienez 74 euro egunean, eta 10 eguneko epe batez.

. Hildako Asegurdunaren aberrirratzea edo garraioa. Asegurduna hilez gero, gorpua Espainian ehortziko diren lekuraino eramateaz eta eramate-gastuez arduratuko da Konpainia. Ez dira sartzen ehortzte- eta ospakizun-gastuak, eta Konpainiak bere gain hartuko ditu gainerako Asegurdunak etxeratzeko gastuak, haiek hasieran aurreikusitako bitartekoak erabilita bidaia egin ezin dutenean.

. Lehenago itzultzea, senideren baten heriotza dela eta. Asegurdunetako edozeinek polizan kontuan hartutako senideetarako baten hil delako bere bidaia eten behar izanez gero, Konpainia Asegurdunaren bidaiaz arduratuko da. Bidaia joan-etorrikoa izango da, eta hegazkinez (turista-maila) edo trenez (1. maila) egingo da, Asegurduna dagoen lekutik Espainiako ehortzeta-lekuraino.

. Ekipajea lapurtzea edo hari kalte materialak egitea. Asegurdunaren ekipajearen edo gauza pertsonaletan izandako kalte eta galera materialengatik kalte-ordaina bermatuta dago kasu hauetan: lapurreta, garraioariaren eruz osorik edo partez gaitzea, edo bidaiaren gertatutako sute zein erasoren baten ondorioz izandako kalteak, 200 euroko mugaraino.

. Kamerak eta argazkilaritzako, irratigintzako eta soinua edo irudia erregistratzeko osagarriak, ekipa elektronikoa eta haien osagarriak ekipaje osoaren gainean aseguratutako zenbatekoaren % 50eraino hartzen dira barne. Kalte-ordaina garraio-enpresak emandakoez gain emango da beti, eta haien osagarria izango da. Kalte-ordaina kobratzeko, garraio-enpresak ematen behar diren kalte-ordaina kobratu izanaren ziurtagiria aurkeztu behar da, bai eta ekipajearen zerrenda xehea eta balio zenbatetsia ere. Kanpo garatzen dira ebasketa eta Asegurdunak berak gaitzea, baita hauek ere: bitxiak, diru, agiriak, baliozko gauzak eta kirol nahiz informatikako materiala. Lapurretaren kasuan prestazioa jasotzeko, dagozkion agintarien aurrean salaketa egin behar da aldez aurretik.

. Senideentzako laguntza ospitaleratuak Asegurdunaren etxebizitzara joateko. Asegurdunak, bere bidaiaren dagoela, gaixotasun edo istripuren baten ondorioz ospitalean geratu behar bada, eta ondo justifikatutako premiazko arrazoi larri batengatik, haren ohiko etxebizitzan pertsona bat egotea beharrezkoa balitz, Konpainiak asegurdunak izendatutako pertsonaren joan-etorriko bidaia antolatuko eta ordainduko du, hegazkinez (turista-maila) edo trenez (lehenengo maila), betiere Espainian bizi bada, pertsona hori Asegurdunaren etxera joan dadin. Berme honek 120 euroko muga du.

. Gainerako Asegurdunaren aberrirratzea edo garraioa. Gaixotasun edo istripuagatik asegurdunetarikoa bat aberriratu edo lekuz aldatu denean, eta, horren ondorioz, haren ezkontideak, haren lehen mailako aurrekoek edo ondorengoek, edo neba-arrebek hasieran aurreikusitako baliabideak erabilita bidaia jarratu ezin dutenean, Konpainia arduratuko da haiek beren etxera edo asegurdunaren ospitalera eramateaz.

. Adingabeokoen edo desgaitasuna dutenen aberrirratzea edo garraioa. Aberriratu edo lekuz aldatutako Asegurdunak hamabost urte baino gutxiago duten edo desgaitasun psikikoa zein fisikoa duten pertsonekin bakarrik bidaiatzen badu, Konpainiak laguntzaile baten edo Asegurdunak izendatutako pertsona baten joan-etorriko bidaia antolatu eta ordainduko du, haurrak edo desgaitasuna dutenak etxerako bidean laguntzeko.

. Senide bat bidaiatzea Asegurduna ospitaleratu gero. Asegurduna gaixo edo zaurituta baldin badaedo bost egunetik gora ospitaleratu gero behar bada, Konpainiak joan-etorriko txartel bat jarriko du Asegurdunaren senide baten edo Asegurdunak izendatutakoaren esku, hegazkinez (turista-maila) edo trenez (1. maila) Asegurdunari laguntzera joan dadin.

. Atzerrian ospitaleratu badute, Konpainiak, gainera, eguneko 74 euroaraino ordainduko ditu, gehienez 10 egunez, laguntzailearen egonaldi-gastuetarako, eta dagozkion fakturak aurkeztearen truke.

. Lehenago itzultzea, senideren baten ospitaleratu dela eta. Istripu edo gaixotasun larri baten ondorioz senideren bat ospitaleratu dutela eta Asegurdunetarikoa batek bere bidaia eten behar izanez gero, Konpainiak Espainiako bere ohiko bizilekura eramateaz arduratuko da, betiere senide horrek ospitalean 5 egunez, gutxienez, egon behar bada eta istripua edo gaixotaldia bidaiaren hasiera-dataren ondoren gertatu bada.

**LABURPEN HONETAN, LABURBILDURIK AGERI DIRA ERAKUNDE HARTZAILEAK CASER-EKIN IZENPETUTAKO ERREFERENTZIAKO POLIZA KOLEKTIBOARI APLIKATZEKOAK ZAIZKION KONTRATU-BALDINTZAK. BERAZ, ZALANTZARIK IZANEZ GERO, BALDINTZA HORIETAN XEDATUTAKO BETEKO DA; ASEGURUDUNAK HARTZAILEAREN HELBIDEAN ESKURATU DITZAKETE BALDINTZOK. ASEGURATUTAKO PRESTAZIOAK INDRARREN EGONGO DIRA AIPATUTAKO ERREFERENTZIAKO POLIZA INDRARREN DAGOEN BITARTEAN ETA ALDAKETARIK EZ DUEN BITARTEAN, ETA POLIZA AZKENTZEN DENEAN EZERETZUKO DIRA. TXARTEL ASEGURATUA JAILKI DUEN ERAKUNDEAK BERTZAT GORDETZEN DU ASEGURU HAU NOIZNAHI AZKENDU EDO ALDATZEKO ESKUBIDEA.**

. Lehenago itzultzea, Asegurdunaren etxebizitzan edo lokal profesionalean ezbehar larriren bat gertatu dela eta. Konpainiak Espainiako helbidera itzultzeko bidaia-txartel bat jarriko du Asegurdunaren esku, baldin eta hark bidaia eten behar bada bere etxebizitza nagusian edo bigarren mailakoan nahiz lokal profesionalean izandako kalte larriengatik (sutea, lapurreta gauzatua edo uholde larria).

. Galdutako ekipajea bilatzea, aurkitzea eta balditza. Hegaldi erregular batean ekipajea galtzen bada, Konpainiak bere esku dituen baliabide guztiak erabiliko ditu ekipajea aurkitu eta, kasua bada, onuradunaren esku ipintzeko, onuradunarentzat inolako kosturik izan gabe.

. Bidaian ahaztutako edo lapurtutako gauzak bidaltzea. Konpainiak bere gain hartuko du lapurtutako eta ondoren berreskuratutako gauzen nahiz ahaztutakoen baldiketa, 120 euroko mugaraino, betiere gauza horien kostu bateratuak aipatutako zenbateko hori gainditzen bada.

. Ekipaje fakturatuaren entregaren atzerapena. Konpainiak 120 euroko mugaraino bere gain hartuko du, dagozkion fakturak aldez aurretik aurkeztuz gero, lehenengo mailako gauzen erosketa, baldin eta erosketa hori ekipaje fakturatuaren entrega 12 ordu edo hortik gora atzeratu izanaren ondorioz egin bada. Kalte-ordain hori ezin zaio inolaz ere gehitu 3.7 artikularen bermeagatik ("Ekipajea lapurtzea edo hari kalte materialak egitea") ematen den kalte-ordainari. Atzerapena itzultzeko bidaian gertatzen bada, ekipajearen entrega iriste-unetik hasita 48 ordu baino gehiago atzeratzen denean soilik egongo da estalita.

. Atzerapena bidaiatzeko garraioibidearen irteeran. Konpainiak garraioibidearen irteeran izandako atzerapenak eragindako gastuak ordainduko ditu, 30 euroko mugaraino. Atzerapenak gutxienez 6 orduko izan behar du. Eta 6 ordu edo gehiagoko atzerapen bakoitzeko, beste 30 €, 180 euroko mugaraino.

. Atzerapena gizarte-gatazken ondorioz gertatzen bada (hala nola grebak, enpresa-itxierak, manifestazioak, sabotajeak, askatasunez ibiltzeko ipinitako mugak, etab.), gastuak ez dira ordainduko.

. Dirua aurrerratzea atzerrian Asegurdunak hasieran aurreikusitako baliabideak erabilita (Traveller txekueak, kreditu-txartelak, bankuko transferentzia edo antzekoak) ezin bada dirurik lortu eta, horren ondorioz, ezin bada bidaia jarraitu, Konpainiak 1.500 euroaraino zenbatekoa aurreratu du, betiere aurrerakin hori kobratzea bermatuko duen abal edo berme bat ematen bazaio. Nolanahi ere, diru-kopuruak gehienez hogeita hamar eguneko epean itzuli behar dira.

. Erantzukizun penalaren defentsa atzerrian. Konpainiak Asegurdunaren erantzukizun penalaren defentsa bermatzen du haren bizitza partikulararen alorrean atzerriko epaitegietan irekitako auzietan, baldin eta aseguruaren xedea den bidaiagatik edo joan-etorriagatik gertatzen badira. Berme horretarako gastu eta fidantzen gehieneko muga 3.000 euro da.

### ESTALDURATIK KANPO DAUDENAK:

Hitzartutako bermeen barruan ez dira sartzen gertaera hauek:

- Asegurdunak bere borondatez eragindako gertaerak edo berak doloz edo erru larri jokatu duenean gertatutakoak.
- Aldez aurretik ezin diren min edo gaixotasun kronikoak, bai eta haien ondorioak ere, baldin eta Asegurdunak bidaiari ekin baino lehen pairatu baditu.
- Suizidion bidezko heriotza edo Asegurdunaren ekintza haren ondorioz eragindako zauriak nahiz gaixotasunak: bere buruz beste egiten saiatzea; berariaz bere buruaren kontra egitea; eta jardura kriminala.
- Alkohola, psikotropikoak, haluzinogenoak edo beste edozein droga zein antzeko ezaugarriak dituen substantziaren baten hartzeak eragindako gaixotasun edo egoera patologikoa.
- Tratamendu estetikoak edo audifonoak, lentillak, betaurrekoak, ortesiak eta, oro har, protesiak jarzteko edo berritzea, baita erditzeak edo haundunaldiak eta edozein motatako gaixotasun mentalet eragindako gastuak ere.
- Asegurdunak jarduera hauetan parte hartzearen ondorioz diren lesioak edo gaixotasunak: kirol-apustu, -lehia eta -probak egitea; eskiaren eta neguko nahiz abenturako kirolen praktika (mendi-ibilik, trekkinga eta antzekoak); eta itasoson, mendian edo basamortuan pertsonak erreskatatzea.
- Energia nuklearrak, erradiozio erradioaktiboak, hondamendi naturalek, gerrako ekintzek, lisarrek edo ekintza terroristek zuzenean edo zeharka eragindakoak.
- 9 euro baino gutxiagoko farmazia- edo medikuntza-gastuak.

### ERANTZUKIZUN ZIBIL PRIBATUKO ESTALDURA:

Aseguratzailerak 30.000 euroko mugaraino bere gain hartuko ditu Kode Zibilaren 1.902tik 1.910ra bitarteko artikuluen arabera, edo atzerriko legerietan aurreikusitako antzeko xedapenen arabera, Asegurdunari esku dakizkiokeen diruzko kalte-ordainak, zehapan personal edo erantzukizun zibilaren zehapan osagarri ez direnak, beste inoren osotasun fisikoari, haren animaliei edo gauzei nahiz gabe eragindako kalte fisiko edo materialen erantzule zibil gisa ordaindu behar baditu.

Muga horren barruan daude epaitegiko kostu eta tasak, bai eta Asegurdunari eskatutako fidantza judzialak eratzera ere.

- Asegurdunaren betebeharrak:

Erantzukizun zibileko ezbeharren kasuan, Asegurdunak edo haren eskubidedunek ez dute inolako erreklamaziorik onartu, negoziatu edo gaitzetsi behar Aseguratzailerak berariaz emandako baimena jaso gabe.

- Estalduratik kanpo daudenak:

- Ibilgailu motordunak, hegazkinak eta ontziak gidatzeagatik nahiz suzko armak erabiltzeagatik Asegurdunari dagozkion edozein erantzukizun.
- Edozein jardura profesional, sindikal edo politikoren edo elkartearen alorreko edozein jardueraren ondoriozko Erantzukizun Zibila.
- Epaitegiek edo edonolako agintariak ezarritako isunak edo zehapenak.
- Kirol profesionalen eta modalitate hauen praktikaren ondoriozko erantzukizuna, zale gisa baldin bada ere: alpinismoa, boxeo, bobsleigh, espeleologia, judo, paraxutismoa, delta hegala, motorrik gabeko hegaldia, poloa, errugbia, jaurtiketa, yachtinga, borroka-arteak, eta ibilgailu motordunetz praktikatutakoak.
- Asegurdunaren esku edozein tituluz utzitako gauzei eragindako kalteak.

### • XEDAPEN GEHIGARRIAK:

Adierazitako bermeen Laguntza eskatzeko telefono bidezko komunikazioetan, honako hauek adierazi behar dira: aseguruaren izena, txartelaren zenbakia, non dagoen, telefono-zenbakia eta behar duen laguntza mota.

Konpainiak ez du bere gain hartzen ezinbesteko kasuen edo herrialde jakin baten ezagarri administratibo edo politikoko berezien ondorioz gertatutako atzeratze eta ez-betetzen erantzukizuna. Dena dela, zuzeneko esku-hartzea ezinezkoa balitz, asegurdunari Espainiara itzultzen denean ordainduko zaizkio egindako gastuak –edo, beharrezkoa bada, aurreko gorabeherak ez dituen herrialde batean dagoenean–, baldin eta gastuok dagozkien ordainagiriak aurkeztu bermatuta badaude.

Prestazio medikoak eta osasun-garraioaren aldez aurretik hitzartu behar dituzte asegurduna artatzen ari den ospitaleko medikuak eta Aseguratzaileraren talde medikoak.

Asegurdunak garraio- edo aberrirratze-bermea erabiltzeagatik kontsumitu gabeko txartelaren parteagatik ordaina jasotzeko eskubidea bada, ordain hori Aseguratzailerari itzuliko zaio.

Asegurdunak arrisku berak estaltzeko kontraturik edo Gizarte Seguratzaren edo aurreikuspen kolektiboko beste edozein erregimenen prestaziorik badu, bermeetan ezarritako kalte-ordainak beste prestazio horien osagarriak izango dira beti.

Aseguratzaileak asegurduna subrogatuko du aseguratzailearen esku-hartzea eragin duten gertaeretan asegurdunari legezkoieken eskubide eta ekintzetan eta emandako edo ordaindutako zerbitzuen zenbateko osoraino.